

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 34 item. Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

AZKEN GRIPE-PANDEMIA HANDIA

Oraindik ere memoria kolektiboan ongi gorderik dago 1918an mundu osoan zabalduko gripe-pandemia oso gogorra izan baitzen. Ehun urte bete dira *espainiar gripea* ezizenaz ezagutzen den pandemia gertatu zenetik. Ordukoa ez zen sasoiko epidemia ohikoa izan, mendez mende tarteka agertzen den pandemia bat baizik. Gogor kolpatu zuen mundu osoan.

Anton Erkoreka EHUko medikuntzako irakasle eta Euskal Herriko Medikuntzaren Museoko zuzendariak aski ongi ezagutzen du gaia, eta asko idatzi du horren inguruan, tartean, *La Pandemia de gripe española en el País Vasco 1918-1919*.

Nahiz eta autore batzuek lehenago ere kasu batzuk izan zirela uste duten, ikerlari gehienen iritziz, pandemia 1918ko martxoan hasi zen Ameriketako Estatu Batuetan (AEB).

AEBetan agertutako pandemia Lehenbiziko Mundu Gerran parte hartu zuten soldadu amerikarrek eramane zuten Europara eta handik mundu osora zabaldu zen. Lehenengo bolada batean, apiriletik ekainera Europa osoan eta Asian zabaldu zen, ekainean Hego Amerikara ailegatu zen, uztailean Pazifikoko hegoaldera, eta abuztuan Indiara. Baina bigarren bolada izan zen kolperik gogorrena. Hori udaren amaieran hasi zen eta udazkenean bukatu.

Erkorekak aipatzen duenez, bigarren bolada horrek populazioaren zati handi bati eragin zion, gaixotasun kliniko izugarria sortuz, eboluzio oso azkarrekoa, eta ezaugarri bat zuena: birrikak odolez bete eta, kasu askotan, bizpahiru egunetara heriotza mingarria ekartzen zuena. Europan populazioaren erdia gaixotu zen, baina gaixotutakoen % 0,5 inguru hil zen.

Erkorekak ohartarazi du, munduan gripe horren ondorioz hildakoen kopuruak puztu egiten dituzten informazio faltsuak ere badirela. Gripe haren ondorioz, munduko populazioaren % 2,5 hil zen, eta Europan, %1. «*Beste zifrak interesatuak dira, ez dira onartu behar. Beldurraren mezua zabaltzen da batzuetan zifra altuak emanez. Osasunaren inguruan dauden enpresa batzuen interesen mesederako izan daitezke informazio faltsu horiek*».

Euskal Herriari dagokionez, lehenbiziko agerraldiak ez zuen eragin handirik izan. Espainiatik heldu zen, eta Bilbo inguruan izan zuen eragina. Iruñean 15 lagun hil ziren maiatza eta ekaina artean. Udan gripea desagertu egin zen, eta irailean berriz agertu. Bigarren bolada hori izan zen kaltegarriena eta oso azkar zabaldu zen Euskal Herrian behera, Baiona eta Donostia pasatuta, Gasteizera ailegatu zen eta Bilbo kolpatu zuen urrian.

Oro har, Euskal Herrian epidemia bat-batean agertu zen, ez zuen denbora askorik iraun eta mila lagunetik hamabi hil zituen. Gainera, garaiko hedabideetan ikus daitekeenez, alarma piztu zuen gizartean. Eragina oso ezberdina izan zen herriaren arabera.

Duela ehun urte gertatutakoa ez zen gripe arrunta izan. Ongi bereizi behar dira sasoiko gripe-epidemiak edo gripe pandemikoak. Lehenbizikoak urtero agertzen dira, hilabete hotzetan, eta gaitz arinak dira. Ondorio larriagoak soilik esparru zehatzetan sortu ditzakete: zaharrengan edo gaixo kolektibo batzuegan. Gripe-epidemia edo pandemiak, berriz, 10-15 urteka agertu ohi dira, eta milioika laguni eragiten diete. Hala ere, 1979. urtetik ez da pandemia handirik izan. 2009ko A gripe-pandemia txikia izan zen: «*Bakarrik 200.000 pertsona hil ziren. Sasoiko gripean milioi erdi pertsona hiltzen dira batez beste*», argitu du Erkorekak.

Azken ehun urte hauetan pandemia hain larri izan izan ez bada ere, horrek ez du esan nahi gertatu ezin daitekeenik. Adituek diotenez, izango da lehenago edo beranduago, mendez mende bizpahiru aldiz agertu ohi baitira. Erkorekak dioenez, medikuak prestatu daude, medio zientifikoak badaude eta tratamenduak ere badira gaixotasunaren konplikazioak tratatzeko. «*Askok ez ziren gripeagatik hiltzen, konplikazioengatik baizik*». Baina, hala ere, badago arazo bat. «*Sasoiko gripean gertatzen den bezala, jende guztia ospitaletara joango balitz, hauek kolapsatu egingo liriteke, gure osasun sistemak ez liritekeelako horrelako epidemia zabal eta handi bati aurre egiteko prestatuta egongo. Hori da ikusten dugun arazo bakarra. Zientifikoki nahiko ondo gaude prestatuta*».

TUBIA, I. Berria. 2018ko martxoaren 6a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zergatik gogoratzen da 1918ko gripe-pandemia?

- a) Pairatu zutenak espainiarrak izan zirelako.
- b) Mundu osoan oso gogorra izan zelako.
- c) *Espainiar gripea* izena jarri ziotelako.

2. Noiz hasi zen 1918ko gripe-pandemia?

- a) Ikerlari gehienek ustez, 1918ko hasieran munduko hainbat tokitan.
- b) 1918ko ekainetik aurrera, Europan zeuden soldadu amerikarren artean.
- c) Autore batzuen ustez, 1918ko martxoa baino lehen.

3. Zer dio testuak 1918ko gripe-pandemiaz?

- a) Denbora laburrean heriotza mingarria eragin ahal zuela.
- b) Bigarren bolada indar gutxiagokoa izan arren, arin zabaldu zela.
- c) Europan populazioaren erdia gaixotu eta hil egin zuela.

4. Zer uste du Erkorekak informazio faltsuez?

- a) Hildakoen kopuruak txikitu egiten dituztela jendea lasaitzeko.
- b) Politikariak haietaz baliatzen direla populazioa beldurtzeko.
- c) Enpresa batzuek erabili ahal dituztela beren interesetarako.

5. Zer eragin izan zuen gripearen lehenengo agerraldiak Euskal Herrian?

- a) Oso gogorra izan zen, batez ere, Bilbo inguruan.
- b) Urtearen bukaeran 15 lagun hil ziren Iruñean.
- c) Espainiatik heldu eta udan desagertu zen.

6. Nolakoa izan zen, oro har, gripe-pandemia Euskal Herrian?

- a) Oso azkar zabaldu eta desagertu zen.
- b) Herri guztiei berdin-berdin eraso zien.
- c) Guztira hamabi hildako utzi zituen.

7. Zer desberdintasun dago sasoiko gripeen eta pandemikoen artean?

- a) Sasoikoak pandemikoak baino ohikoagoak eta arinagoak izaten dira.
- b) Pandemikoez zaharrengan baino ez dituzte ondorio larriak izaten.
- c) Sasoikoak urtero agertzen dira eta milioika laguni eragiten diete.

8. Zer dio Erkorekak pandemiez?

- a) Ehun urtetik ehun urtera gertatzen direla.
- b) Etorkizunean ere gerta daitezkeela.
- c) Hiru aldiz gertatu direla azken bizpahiru mendeetan.

9. Zer uste du Erkorekak gerta daitezkeela orain pandemia egonez gero?

- a) Ez genukeela tratamendurik behar bezala aurre egiteko.
- b) Osasun-sistemak ezingo lituzkeela gaixo guztiak zaindu.
- c) Gaur egungo profesionalek ez luketela jakingo nola erantzun.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (10, 11, 12...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ONDO JANEZ GERO, EZ DUZU PASTILLARIK BEHARKO

Leku guztietan daude eta gero eta ospe handiagoa daukate. Espainiako estatuan, hamar herritarretatik batek elikadura arloko gehigarriak hartzeko ohitura dauka, halaxe dio The European Food Information Council erakundeak, nahiz eta beste ikerketa batzuek % 30eraino igotzen duten zifra hori. Dena den, urruti gelditzen da beste herrialde batzuetako estatistiketatik: Alemanian, esaterako, populazioaren % 40k hartzen ditu; AEBn % 50ek; eta Danimarkan, hamarretik seik. **10**

Hori dela eta, azken urteetan, magikoak diruditen produktuez bete da merkatua. Ezagunen artean, bitaminak, mineralak eta aminoazidoak ematen dituzten gehigarriak daude, baita omega-3 kapsulak ere, bihotza zaintzeko balio omen dutenak. Asko hedatu da azken horien kontsumoa, eta jendeak gehien hartzen dituen artean daude. **11** Badira kolageno pastillak ere, 560 kiwik adina E bitamina daukaten pilulak eta A bitaminazko kapsulak, hiru dozena azenarioz egindako entsalada baten baliokide omen direnak.

Halako eskaintza dagoela ikusirik, nahitaez egin beharrekoa da galdera hau: benetan behar ditugu pilula horiek guztiak? Beharrezkoa da 10 eta 50 euro artean ordaintzea gure dieta hobetzeko? Elikadura arloko gehigarrien helburua pertsonen elikadura osatzea da eta, egia da, efizienteak dira dietan falta diren mantengutza ematen dituztenean. **12** Kasu askotan, bitaminak edo mineralak dituzten gehigarriekin, orekatu egin nahi izaten da elikadura txar bat. Baina gogoan hartu behar da hemen batez besteko dieta oso osatua dela, nahiz eta zink gutxi samar izaten duen. Gabezia hori, dena den, urdaiazpiko pixka bat janez konpondu daiteke. Adituen esanetan, dena den, dieta orekatua, askotarikoa eta fruta eta berdura ugarikoa eginez gero, ez da gehigarririk hartu beharrik izaten.

Gure dietan gabeziarik eduki ez eta gehigarri horiek hartuz gero, gerta liteke kontrako eragin kaltegarriak agertzea, bereziki komeni baino kopuru handiagoetan hartzen direnean. Ongi ulertzeko, komeni da gogoan hartzea bitaminen eta antioxidatzaileen sistemak nola funtzionatzen duen: orekan dagoen ekosistema bat bezalakoa da. **13** Hori dela eta, pastilla horietako edozein hartu aurretik, komeni izaten da familiako medikuari edo endokrinologoari galdetzea.

Gauza jakina da hezurrek kaltzioa eta D bitamina behar dituztela sendotzeko eta, hortaz, pentsa liteke elementu horiekin eginak dauden gehigarriak hartzeak lagundu egingo diela, adibidez, adineko pertsonen erorikoetatik babesten eta hausturak izateko arriskua murrizten. **14** Datuen arabera, adin horretako emakumeen % 40k eduki dezakete haustura larri bat, baina ikerketa horrek baztertu egiten du gehigarri horiek zerbaitetarako balio dutela dieta bidez kaltzioa eta D bitamina hartuz gero.

Bestalde, herdoilaren edo oxidatzaileen aurkako konprimatuek ere arrakasta handi samarra daukate kontsumitzaileen artean. Arazoa da antioxidatzaileak izateko bideak ez direla berdinak. **15** Baina dena aldatzen da kapsulei buruz ari garenean: ezer gutxirako balio dute eta, gainera, arriskutsuak ere izan daitezke, mesede baino kalte gehiago egin dezakete. Aditu batzuek uste dute antioxidatzaileen kontzentrazio handia toxikoa izan daitekeela eta, ondorioz, hobe dela herdoilaren aurkakoak modu naturalean eskuratzea.

Gehigarriak eta bitaminak, gainera, Interneten edo legezkoak ez diren lekuetan erosten direnean, handitu egiten da arriskua. Produktu faltsuak aurkitu izan dira, galarazitako substantziak kutsatuta dauden produktuak edo guztiz legez kanpokoak. **16** Hori dela eta, medikuak halakoak hartzeko agintzen duenean, konfiantzazko lekuetan erostea da onena.

Consumer aldizkaria. 2018ko abendua. Egokitua

2. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. Hortxe dago gakoa: eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da horiek hartzen dituen pertsonak benetan gabeziaren bat edukitzea nutrizioaren arloan.
- B. Arriskurik handiena kontrol falta da, eta gerta liteke iragartzen dituzten elementu guztiak ez edukitzea edo etiketan ez dauden substantziak edukitzea.
- C. Batzuk berez sortzen dira gorputzean, eta beste batzuk, berriz, jaten ditugun elikagaietan daude, adibidez fruta, berdura, zereal, arrautza eta intxaurretan.
- D. Beraz, gehigarri horietakoren bat kopuru handietan hartzen denean, gerta daiteke gabeziaren bat sorraraztea besteetan.
- E. Hala ere, estatuko herritarrek gero eta diru gehiago gastatzen dute bitamina-konplexuetan eta nutrizio arloko gehigarrietan: urtean 190 milioi euro inguru.
- F. Zerrenda osoa aztertuko bagenu, ikusiko genuke denetarik dagoela: kaltztoa ematen dutenak, D eta C bitaminak, magnesio-potasioa daukatenak edo burdinez hornituak.
- G. Beraz, esan daiteke badagoela nolabaiteko eztabaida gehigarrien inguruan, artifizialak izanda, arriskutsuak direla diotenen eta horren aurka sutsu azaltzen direnen artean.
- H. Baina 50 urtetik gorako 50.000 heldurekin egin duten ikerlan baten arabera, ez dago hori berretsiko duen ebidentzia zientifikorik.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak							

Soberakoa	
------------------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

GARRAIO-TXARTEL BAKARRAREN BILA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako garraio-txartelek “*erabateko interoperatibitatea*” izango dute laster. Hori dio Euskadiko Garraio Agintaritzak eta hainbat neurri hartu dituzte azken asteotan **17** hori lortzeko. Txartelen erabilerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurraldeen arteko **18** apurtzea eta hiru probintzietan txartelen erabilera erabatekoa izatea da asmoa. Txartel bakarra sortzea izango da hurrengo pausoa.

Mugi (Gipuzkoa), *Barik* (Bizkaia) eta *Bat* (Araba) txartelak EAEko garraio publiko guztietan erabili ahal izango dira datozen hilabeteotan; Renfe trenetan, berriz, ez, Sustapen Ministerioak **19** duelako. 2014an Euskadiko Garraio Agintaritzako (EGA) kideek Interoperatibitatearen Master Plana onartu zuten eta, horren harira, txartel guztiak edozein probintzietan erabiltzeko neurriak hartu dira azken urteotan. **20**, oraindik ez zegoen garraio guztietan edozein txartel erabiltzeko aukerarik eta, horregatik, bi neurri hartu behar izan dituzte: batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Metroan *Mugi* txartela erabiltzeko aukera emango du; eta bestetik, *Bat* eta *Barik* txartelak Lurraldebus zerbitzuetan erabili ahal izango dira.

Garraioen sistemetan hainbat **21** egin beharko direnez, oraindik pixka bat itxaron behar izango da neurri honen emaitzak ikusteko. Bizkaiko Garraio Partzuergoak **22** duenez, bi hilabete barru erabili ahal izango da *Mugi* txartela Bilboko Metroan. Bestetik, oraindik ez dute **23** *Bat* eta *Barik* txartelak noiz erabili ahal izango diren Lurraldebus zerbitzuetan. **24**, *Bat* eta *Barik* txartelak antzematen dituzten elementu teknologikoak instalatu behar dituzte Lurraldebus autobusetan. Bidaiari **25** ez dira aldatuko eta gaur egun probintzia bakoitzean **26** dauden deskontuak aplikatuko dira. Beraz, *Mugi* txartela Bizkaian erabiliz gero, adibidez, *Barik* txartelak dituen deskontuak aplikatuko dira.

Euskadiko Garraio Agintaritzaren arabera Euskadiko garraio publikoko bidaiarien mugikortasuna nabarmen hobetuko da neurri horiekin, baina hurrengo **27** daukate buruan. EAEko garraio publikoetan txartel bakarrarekin bidaiatu ahal izatea da xedea, elementu fisiko edo birtual gisa. Bizkaian esperientzia pilotua **28** dute proba bezala eta erabiltzaileek sakelako telefonorako aplikazio baten bidez bidaiatu ahal izango dute. Esperientzia pilotu honen **29** garraio publikoa erabiltzeko modu berri honen **30**, kalitatea, kudeaketa eta segurtasuna ezagutzeko balioko dute.

EGako kideek eta Eusko Jauriaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak mugikortasun jasangarriaren lege aurreproiektuaren **31** aurkeztu dute berriki. Tramitazio-prozesuari hasiera eman zaio orain eta lanerako mahaia **32** dute Legebiltzarrera bidali behar den azken dokumentua prestatzeko. Ekimen honekin mugikortasunari buruzko politika legez koordinatu eta agindu nahi da. Legeak pertsonen eta merkantzien garraioaren ardurak jasotzen dituzten printzipioak eta **33** ezarri nahi ditu, mugikortasun jasangarriaren **34** integrala lortzeko gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

<etakitto.eus> 2019ko urtarrilaren 25a. Egokitua

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

17. a) sari
b) helburu
c) ikur
d) eredu

18. a) sarrerak
b) lehiaketak
c) mugak
d) debekuak

19. a) bermatzen
b) aldarrikatzen
c) aldatzen
d) kudeatzen

20. a) Hala ere
b) Betiere
c) Baita ere
d) Edonola ere

21. a) eragozpen
b) salbuespen
c) iraupen
d) egokitzapen

22. a) adierazi
b) betearazi
c) salarazi
d) galarazi

23. a) neurtu
b) zehaztu
c) sakondu
d) berritu

24. a) lzan ere
b) Batez ere
c) Bide batez
d) Hain zuzen ere

25. a) zergak
b) tiketak
c) tarifak
d) makinak

26. a) trukean
b) enkantean
c) indarrean
d) eraginpean

27. a) gehikuntza
b) urratsa
c) aukera
d) saihezbidea

28. a) atzeratuko
b) desbideratuko
c) bukatuko
d) abiatuko

29. a) irabaziek
b) ondorioek
c) oihartzunek
d) burutazioek

30. a) gogortasuna
b) zuzentasuna
c) eraginkortasuna
d) ahultasuna

31. a) zirriborroa
b) pasarteak
c) gogoeta
d) gabezia

32. a) indartu
b) arakatu
c) banatu
d) osatu

33. a) gaitasunak
b) larritasunak
c) zaletasunak
d) lehentasunak

34. a) kokapen
b) garapen
c) sailkapen
d) aurreikuspen

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazioko langilea zara, eta pasa den hilabetetik bulegoko arduraduna gaixorik dago. Horren ondorioz, gauzak asko aldatu dira eta ez da lehen bezain ondo lan egiten. Bezeroek ere hainbat kexa jarri dituztenez, ezinbestekotzat jotzen duzu egoerari irtenbidea aurkitzea.

Hori dela eta, idatzi eskutitza saileko arduradunari egoeraren berri emateko, bezeroek jarritako kexak jakinarazteko eta irtenbidea eskatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herrian kaleko salmenta ilegalak edo *top-manta* gero eta zabalduek dago eta, horrek, bertako dendariei gero eta eragozpen gehiago eragiten dizkie. Azkenaldian arazoak txarrera egin du eta, konponbide gisa, herriko dendarien elkarteak *top-manta* erosten dutenei isun bat jartzea proposatu dio Udalari.

Dendarien proposamenak herritarren artean eztabaida piztu du eta horrexegatik erabaki duzu iritzia ematea herriko aldizkarian.

Idatzi zure herrian zer gertatzen ari den, dendarien elkartearen eskaerak zer ekar dezakeen eta eman zure iritzia.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa.** Aukeratu erantzuna

■ **Irakurgaia:** «AZKEN GRIPE-PANDEMIA HANDIA»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	C	5.	C	6.	A
7.	A	8.	B	9.	B

■ **2. ariketa.** Sartu testu zatia dagokion hutsunean

■ **Irakurgaia:** «ONDO JANEZ GERO, EZ DUZU PASTILLARIK BEHARKO»

Hutsuneak	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	E	F	A	D	H	C	B

Soberakoa	G
-----------	---

■ **3. ariketa.** Hutsuneak bete

■ **Irakurgaia:** «GARRAIO TXARTEL BAKARRAREN BILA»

17.	B	18.	C	19.	D
20.	A	21.	D	22.	A
23.	B	24.	A	25.	C
26.	C	27.	B	28.	D
29.	B	30.	C	31.	A
32.	D	33.	D	34.	B